

Hauteskunde ziklo berri baten atarian gaude eta 2019an, besteak beste, herri mailako hauteskundeak izango ditugu.

EH Billdu duela hilabete batzuetatik hona lanean dabil erronka garrantzitsu honi behar bezala erantzuteko. Hauteskundeei begira, barne prozesu honetako lehendabiziko urratsa dugu EH Bilduren zerrendaburuaren hautaketa.

Aurreko astelehenetik, urriaren 15etik urriaren 28ra bitartean Laudioko EH Bilduren zerrendaburua hautatzeko proposamenak aurkezteko epea zabalik dugu EH Bilduko kideok. Zerrendaburuaren hautaketa prozesua azaroan amaituko da eta orduan jakingo da zein izango den Laudioko EH Bilduren zerrendaburua hurrengo udal hauteskundeetan.

Hauteskundeei begirako barne prozesu honen aurrean, EH Bilduko hainbat emakumek eta gizonek, EH Bilduren hauteskunde zerrendak egiteko partehartze prozesua kontuan izanik, behar besteko abal aurkeztu ditugu NATXO URKIXO ORUETAREN hautagaitza babesteko eta datorren urteko udal hauteskundeetan, EH Bilduren lan taldearen zerrendaburu izan dadin. Araudiak ezarritako gutxienerako kopurua -15 abal - erraz gainditu dugu eta, besteak beste, egungo udal taldeko kideak eta azken hamarkadetan Laudioko Udaletxean egondako hautetsiak daude.

*Laudion, 2018ko urriaren 18an*